

## Cristina Enea parkeak lehenengo mendeurrena ospatuko du espazio publiko gisa

Fundazioak bisita gidatuak eta bisita antzeztu bat antolatu ditu, ekainaren 2tik 6ra bitartean, *Mandasko duke-dukesek finka herritarrei utzi zietenetik ehun urte bete direla ospatzeko.*

Datorren ekainaren 2an, mende bete izango da Kristinaenea parkea donostiarrei ireki zitzaiela. Donostiako Udalak 1926an hartu zuen bere gain finkaren kudeaketa, Mandasko duke-dukesean oinardekoek egindako lagapenaren ondoren. Modu horretara, Maria Cristina Brunetti eta Gayoso eta Fermin Lasala eta Collado senar-emazteek hiriari paseatzeko parke bat emateko zuten nahia bete zuten. Harrezkero, Donostiako berdegune maiteen eta jendetsuenetakoa bihurtu da Kristinaenea.

Efemeridea ospatzeko, Cristina Enea fundazioak eta Donostiako Udalak hainbat jarduera antolatu dituzte Mandasko duke-dukesean historia eta ondarea herritarrei ezagutarazteko. Izan ere, XIX. mende amaieran, senar-emazte haiek eragin handia izan zuten Donostiako burgesian, eta finka hiriko miretsienetakoa izan zen, zuen diseinuagatik eta paisaia-aberastasunagatik.

"Mandasko duke-dukesek duela ehun urte hiriari egin zioten oparia da Kristinaenea. Espazio hori bizirik, irekita eta donostiar guztien zerbitzura egotea nahi zuten, eta, ehun urte geroago, esan dezakegu gurari hori egunero betetzen dela. Arnasa hartzen duen parke bat da, jendeak bere egiten duena, eta horrek merezi du ospatzea", adierazi du Ingurumeneko zinegotzi Iñigo Garciak.

### **Mendeurrena ospatzeko jarduerak**

Ekainaren 2an, 3an eta 4an, bisita gidatuak eskainiko dira parkean, haren eraikuntzaren historia ezagutzeko eta txoko berezietako batzuk deskubritzeko. Ordutegia honako hau izango da:

Asteartea, ekainak 2: 17:00 h (euskaraz) eta 18:30 h (gaztelaniaz).

Asteazkena, ekainak 3: 18:00 h (euskaraz)

Osteguna, ekainak 4: 18:00 h (gaztelaniaz)

Bestalde, larunbatean, ekainak 6, bisita antzeztuak izango dira: aktore batek, Mandasko dukesarena eginez, parkea zeharkatuko du, haren bitzta eta finka sortzeko prozesua kontatuz. 1905. urtera egindako bidaia bat izango da,

# Prensa oharra

## Nota de prensa



emakume itzaltsu horri bere bizitzan giltzarri izan ziren uneetan lagun egiteko. Bi saio izango da: 10:30ean euskaraz eta 12:30ean gaztelaniaz.

Batean zein bestean parte hartzeko, Cristina Enea Fundazioaren webgunearen bidez eman behar da izena: [www.cristinaenea.eus](http://www.cristinaenea.eus)

Ekaineko lehen astean programatutako bisita horiez gain, Cristina Enea Fundazioak gogorarazi nahi du herritarrek webgunean eskuragarri dutela, kontsultarako eta doan deskargatzeko, "(Breve) vida de la duquesa de Mandas" argitalpena, Cristina Brunetti dukesaren bizitzaren xehetasunak jasotzen dituen liburuxka. Carlos Rilova Jericó historialariak prestatutako argitalpen horrek XIX. mendearen bigarren erdiko eta XX. mendearen hasierako pertsonaia publiko horri buruzko informazioa ematen du, lotura estua izan baitzuen hark Kristinaenea finkarekin.

Liburuko kapituluaren bitartez, Mandasko duke-dukesak bizi izan ziren garaiko Donostiaren errebaso historiko bat egiten da, baita nola emakume aristokratek XIX. mendeko Europan izandako rolaena eta garai historiko hartan burgesen eta aristokraten artean izaten ziren ezkontzena ere, Mandasko duke-dukesak eta, bereziki, Cristina Brunetti dukesa kontakizunaren erdigunean jarriz.